

DEIALDIA

ProWein 2016

Düsseldorf, Alemania

Egunak: 2016ko martxoak 13tik 15era.

Lekua: Düsseldorfeko Azoka Eremua.

Maiztasuna: Urtean behin.

Norentzat: Ardogintza industriako profesionalentzat.

Izen-emate epea:
2015ko urriaren 21an.

Parte-hartze prezioa:

(1. motako enpresa)

Banakako erakusmahai: 1.320 € + BEZa.

Erakusmahai partekatua: 660 € + BEZa.

Más información: Tel.: 945 14 18 00
María Fdez. de Romarategui:
internacional@camaradealava.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte-hartze baldintzak

Parte-hartze eredu eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Eskainitako zerbitzuak

Izen-emate fitxa

Euskal Elikadura Industria kanpoan sustatzeko ekintzen barruan, PROWEIN 2016 azokarako euskal enpresen parte-hartze taldekatua antolatu du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak.

Eusko Jaurlaritzak 273 m²-ko lekua edukiko du, PROWEIN 2016 azokan, **banakako stand** batekin edo **stand partekatua** batekin parte hartu nahi duten **Euskadiko ardogintza industriako enpresentzat**. Standa **Azokako 10. Pabiloian** egongo da.

ProWein 2016 azokaren Izaera

Erakusketa eremua: gutxi gorabehera 67.000 m²

2015ko erakusketariak: 50 herrialdetako ia 6.000 enpresa

2015ko bisitariak: mundu osoko 52.000 profesional baino gehiago, europarren kopurua nabarmenduz

Azokaren web gunea: www.prowein.com

2014. urtean, Alemania munduko ardo inportatzaileetan lehenengoa izan da, bolumen aldetik, eta hirugarrena, berriz, balioari begiratuz gero.

Hiru herrialde hornitzaile nagusiek (Italia, Frantzia eta Espainia) biltzen dute, inportazioen balioari dagokionez, merkatu-kuotaren %80: Italiak horren %35 du, Frantziak %30 eta Espainiak %14.

2014. urtean, Alemania izan zen Espainiako esportazioen helmuga nagusia balio aldetik (371 milioi euro). Bolumenari dagokionez, berriz, 2014an 3,6 milioi hl esportatu ziren, batez beste hl-ko 102 €-ko balioarekin. Beraz, 2014ko joerek erakusten dute Alemania dela, oraindik, gure merkatu eta ardo erosle nagusia.

Europako azoka garrantzitsuena da ProWein azoka, kontsolidatuena, eta munduko ardo eta pattar ekoizle garrantzitsuenak biltzen ditu.

Profesionalentzat bakarrik da azoka, eta bisitariak banaketa-kanaletako erosle adituak izaten dira (handizkariak, hotelak, txikizkako catering enpresa espezializatuak, inportatzaileak, banaketa-kate handiak eta abar).

ERAKUSKETA-EREMUA: 67.000 m².

ORDUTEGIA: 09.00-18.00.

2015KO ERAKUSKETARIAK: 50 herrialdetako ia 6.000 enpresa.

2015KO BISITARIAK: mundu osoko 52.000 profesional baino gehiago, europarren kopurua nabarmendu behar bada ere.

AZOKAREN WEB ORRIALDEA: www.prowein.com



Parte-hartze baldintzak

[Joateko konpromisoa](#)

[Euskal Herrian egindako produktuak](#)

[Ebaluazio-inkesta](#)

Egoitza soziala Euskal Herrian duten eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta dauden ekoizpen-enpresek bakarrik parte har dezakete ekintza honetan.

Azoka baino lehen:

- Enpresako ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, **Euskadiren pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman.** Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.
- Enpresek derrigor egon behar dute bertan muntaketa-egunean, adierazitako orduan produktuak jasotzeko eta erakusmahaiak azokaren inaugurazioa hasi baino dezente lehenago dekoratzeko.

Azokak iraun bitartean:

- Ikusgai jarriko diren produktuak **Euskal Herrian egindakoak** izango dira. Ezingo da, inolaz ere, beste autonomia erkidegoetako produkturik aipatu edo aurkeztu.
- Azokak iraun bitartean erakusmahai egunero eta ordutegi osoan zainduko da.
- Azoka amaitutakoan, produktu guztiak behar bezala jasoko dira eta erakusmahaiaren elementuak jasotako baldintzetan itzuliko dira.

Azokaren ondoren:

- **Ebaluazio-inkesta** bete, eta entregatu, organizazioaren argibideak jarraituz.



Parte-hartze eredua eta kostua

Parte-hartze eredua

2016ko edizioan, hamaikagarren urtez parte hartuko du Eusko Jaurlaritzak, **273m²-ko, gutxi gorabehera, erakusmahai batekin**; kalitatezko ardoak (sor-markakoak), sor-markako txakolina eta/edo bestelako edari alkoholduak ekoizten dituzten Euskal Elikadura Industriako enpresak hartuko ditu mahaia.

Alemaniko merkatu garrantzitsuenetako bat denez gure esportazioentzat, ekintzari bultzada handi bat ematea erabaki du Eusko Jaurlaritzak, horretarako parte hartzeko bi modu proposatuta:

- **Banakako erakusmahaiaren** eredua.
- **Erakusmahai partekatua**ren eredua (eremu komuna, enpresen arteko bereizketarik gabe).

Parte-hartze kostua

Euskal Herriko kalitatezko ardoen sustapen generikoa sartzan da ekintza honetan. Euskal Herriko enpresa bakoitzaren banakako sustapenez gain; aurrerago zehaztutako hainbat ekintza ere sartzan dira.

Parte-hartze kostuan sartuta dago 2016ko Sustapen Planean aurkeztutako sailkapenean 1 motako enpresei aplikatuko zaien %70eko diru-laguntza.

Jarraian, ezarritako 3 motak ekarriko ditugu gogora:

1 MOTAKO ENPRESA

Nagusiki Euskal Herriko lehengaez hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorriaren egiaztatu beharko du.

2 MOTAKO ENPRESA

Euskal Herriko kanpoko lehengaez hornitzen diren enpresak, tokiko lehen mailako produkzioerik ez badago, betiere.

3 MOTAKO ENPRESA

Nagusiki Euskal Herriko produktuez hornitzen ez diren enpresak, nahiz eta tokiko lehen mailako produkzioa egon.

Hala, Prowein 2016 azokan parte hartzeak ondorengo kostua edukiko du 1 motako enpresentzat:

- Banakako erakusmahaiaren:
1.320 € + BEZa (%21)=1.597,20 €
- Erakusmahai partekatua:
660€ + BEZa (%21)= 798,60 €

2 edo 3 motako enpresaren batek azokan parte hartzeko interesa badu, antolatzaileekin harremanetan jarri beharko du.

Parte-hartze kuota ordainketa bakarran egingo da. Faktura eskaera onartu ondoren egingo da.

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

[Izen-emate fitxa, behar bezala beteta](#)

[Ordainketa-egiaztagiria](#)

[Izena emateko azken eguna: 2015ko urriaren 21ean](#)

Leku-kopurua mugatua denez, parte hartzeko interesa baduzu eskatutako dokumentuak lehenbailehen bidaltzeko gomendatzen dizugu; **945 143 156** faxera edo **internacional@camaradealava.com** helbide elektronikora bidali, María Fdez. de Romarateguiaren izenean.

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa izen-emate agirien jasotze hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaera aitzat hartzeko, honako agiri hauek bidali behar dituzu, faxez edo posta elektronikoz, adierazitako helbideetara:

1. Honekin batera doan izen-emate fitxa, behar bezala beteta.

Fitxa horretatik hartuko dira azokako katalogo ofizialerako eta gainerako promozio-ekintzetarako datuak.

2. Izen-emate kuotaren ordainketa-egiaztagiria.

Ordainketa bankuko transferentzia bidez egingo da:

Контzeptua: "Enpresaren izena + PROWEIN 2016".

Контu zenbakia: ES49-3035-0179-61-1791069900 HAZI Fundazioaren izenean (LABORAL KUTXA).
Laboral Kutxaren Bica: CLPEES2MXXX.

Izena emateko azken eguna: 2015ko urriaren 21a.

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

HAZI FUNDAZIOAren Finantza Sailak bidaliko du **dagokion zenbatekoaren faktura parte-hartzea egiaztatu ondoren.**

GARRANTZITSUA:

Izen-ematea formalki egintzat jotzeko, ESKATUTAKO AGIRI GUZTIAK bidali beharko dira, eta izen-ematearen ordainketa-eguna joko da izen-emate eguntzat, ondorio guztietarako.

Eskatutako agiriak bidaltzeak EZ DAKAR enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartzea, gutxieneko enpresa-kopuru bat beharko baita parte hartzeko. Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko du izen-ematea onartu den edo ez.

FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, EUSKAL HERRIKO PABILOIAN SARTU IZANAREN JAKINARAZPENA, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK ORDAINDUTAKO GUZTIA (%100) GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan bakarrik egongo da enpresak emandako arrazoiak aztertzeko eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.


Honako kasu hauetan bakarrik itzuliko da enpresek ordaindutakoa:

- Enpresa erakusketariak eskatutako espazioa Azokaren antolatzaileek Eusko Jaurlaritzari emandakoa baino handiagoa bada, enpresa hautatuak eskubidea edukiko du aldez aurretik ordaindutako izen-emate kuota itzul diezaioten.
- Halabeharrez edo parte-hartzaile kopuru nahikoa ez edukitzeagatik, Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartzeari uko egiten badio, enpresek eskubidea edukiko dute ordaindutako guztia (%100) itzul diezaioten.

Bidaia eta ostatu hartzea

Ekintza honetan **ez daude sartuta** joan-etorri eta ostatu gastuak. Dena dela, Eusko Jaurlaritza enpresen zerbitzura dago bidaia eta ostatua koordinatzen laguntzeko, enpresa erakusketariak hala eskatuz gero; kasu horretan, fakturazioa enpresa bakoitzaren araberakoa izango da.

Eskeinitako zerbitzuak

[aurkibidera itzuli](#) 

[1\) Eremuaren kontratazioa](#)

[2\) Dekorazioa](#)

[3\) Salgaien garraioa](#)

Eusko Jurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:

[Eremuaren kontratazioa](#)

Enpresa erakusketari bakoitzarentzat 9 m² inguruko banakako stand pertsonalizatueta banatutako sustapen-eremu batekin eta standen artean partekatuko den eremu batekin parte hartuko da.

[Dekorazioa](#)

Erakusmahaiaren dekorazioa eta oinarrizko elementuak berdinak izango dira Euskal Herriko pabiloiko erakusketari guztientzat; honako hauek, alegia:

Banakako erakusmahaietan

(bereizketa-hormekin): mahai bat eta 4 aulki, mostradorea, enpresa erakusketariaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia hozkailuarekin.

Erakusmahai partekatuan (hormarik gabe): mostradorea eta enpresaren errotulua; bileretarako mahaiak, biltegia hozkailuarekin eta erabilera komunitariokokonexio elektrikoa.

Oharra: Standek ez dute harraskarik edukiko. Eremu komun batean egongo dira horiek. Euren standean harraska eduki nahi duten enpresek dagokion diru-kopurua ordaindu beharko diote standa muntatzeaz arduratuko den enpresari.

Oinarrizko altzarien, elementu elektrikoen edo standen behar elektrikoen inguruko edozein aldaketa, horien gehitzea edo aldatzea suposatzen duena, zuzenean kontratatuko du erakusketari bakoitzak, eta horrek ordainduko du; dekoratzaileak zuzenean fakturatuko du horren kostu erantsia.

[Salgaien garraioa](#)

Eusko Jurlaritzak salgaien garraio multzokatua antolatuko du, garraiolariak adierazitako leku komunitik erakusmahairaino.

Garraiolariak fakturatuko du salgaiak eramatearen kostua, eta enpresa erakusketariaren kontura izango da.

Unean-unean adieraziko dira garraioenpresa esleipendunaren datuak.

Enpresek bertan egon beharko dute adierazitako orduan salgaiak jasotzeko eta azoka inauguratu baino lehen standa apaintzeko nahiko denbora edukitzeko.

[jarraitu](#) 

Eskeinitako zerbitzuak

[4\) Kopa eta listuontzi zerbitzua](#)

[5\) Azokako katalogoan sartzea](#)

[6\) Komunikazio-kanpaina](#)

[7\) Pabiloia mantentzeko lanak \(garbiketa, elektrizitatea, ura eta abar\)](#)

[Kopa eta listuontzi zerbitzua](#)

Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du kopen, garbiketaren eta listuontzien kontratazioa. Zerbitzu horren finantzaketa %100ekoa izango da lehenengo kopa-erretiluari eta listuontziari dagokionez. Enpresa erakusketariak elementu gehiago kontratatu nahi baditu, zuzenean kudeatu beharko du eskaera zerbitzuaren hornitzailearekin.

[Azokako katalogoan sartzea](#)

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusketari guztiak azokaren antolatzaileek egiten duten katalogo ofizialean ager daitezen, azokako erakusketari guztiak biltzen baititu (IZEN-EMATE FITXAn jasotako datuak agertuko dira).

[Komunikazio-kanpaina](#)

Eusko Jaurlaritzak komunikazio-kanpaina masiboa egingo du, izena eman duten gainerako herrialdeetako eroslebisitariari enpresa erakusketarien eta pabiloiaren kokapen zehatzaren berri emateko eta horiek ikustera joatera gonbidatzeko.

Horrez gainera, gure upategien presentzia ahalik eta gehien errentabilizatzeko izapideak egingo dira, puntualki emanda azokak eskaintzen dituen promozio-aukera guztien berri (dastatze-eremua, prentsa-lehiaketa eta abar).

[Pabiloia mantentzeko lanak \(garbiketa, elektrizitatea, ura eta abar\)](#)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketaz, elektrizitateaz, uraz eta, oro har, pabiloia behar bezala zaintzeaz. Nolanahi ere, enpresa bakoitza izango da standa txukun-txukun mantentzearen arduradun.

Izen-emate fitxa

ProWein 2016

9. ORRI | DEILADIA
PROWEIN
2016

[aurkibidera itzuli](#)



PROWEIN 2016 azokako Eusko Jaurlaritzaren erakusmahaian egon nahi dut, ondorengo moduan:

Banakako erakusmahaia

Erakusmahai partekatua

Enpresaren izena, KATALOGO OFIZIALERA KO:

Oharra: izen hau erabiliko da sustapen-ekintza guztietan (ERAKUSMAHAIAREN ERROTULUAN barne).

Enpresaren izen soziala:

I.F.K.:

Nek. eta Elik. Ind. Erregistroa (R.I.A.):

Helbidea:

Kalea / Plaza / Hiribidea:

P.K. – Herria:

Probintzia:

Telefonoa:

Faxa:

Helbide elektronikoa:

Web orria:

Azokaren koordinazioaren arduraduna:

Sakelako telefonoaren zenbakia:

Erakusgai jarriko diren produktuak eta markak:

Produktua

Marka

Produktua	Marka

Data, sinadura eta enpresaren zigilua:

Itzuli agiri hau fax bidez **945 143 156** edo posta elektronikoz **internacional@camaradealava.com**
2015ko urriaren 21an baino lehen.